

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK

A2 MAILAKO ZIURTAGIRIA ESKURATZEKO AZTERKETA

DESKRIBAPENA

1. AZTERKETAREN HELBURUA

Azterketariak komunikatzeko duen gaitasuna eta hizkuntza erabiltzeko duen gaitasuna ebaluatzea da azterketaren helburua.

Menderatze azterketa bat da, azterketariak hartzaile bezala edo ekoizle bezala, eta modu interaktiboan, hizkuntza erabiltzeko gai den ebaluatzeko, eta ohiko komunikazio-egoeretan beste erabiltzaile batekin harreman pertsonalak eta sozialak izateko. Horretarako, eguneroko gaietara buruzko ahozko edo idatzizko testuak sortuko ditu, hurbileko ingurunearekin lotutakoak, eta maiz erabiltzen diren hizkuntza-baliabideak erabiliz adierazitakoak.

A2 mailaren ziurtagiria eskuratzeko, azterketa bat gainditu behar da. Azterketa horren maila finkatzeko, Europako Kontseiluaren A2 mailaren berezko gaitasunak hartuko dira oinarri, hizkuntzen Europako Erreferentzi Markoan definitu bezala.

Informazio gehiago: [sakatu hemen](#) *Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskoletako Hizkuntzen Irakaskuntza Berezien Oinarrizko Mailari dagokion Curriculumuma* ikusteko.

2. AZTERKETAREN DESKRIBAPENA

2.1 Egitura eta iraupena

- Azterketa lau probek osatutakoa izango da. Proba bakoitzean hizkuntza-trebetasun bat ebaluatuko da: irakurriaren ulermena, entzunaren ulermena, idatzizko adierazpena eta ahozko adierazpena. Lehenengo hiru probak saio bakar batean egiten dira. Ahozko proba beste saio batean egiten da; saio honetara aurkezteko, azterketariei noiz eta nora joan behar duten aldez aurretik esango zaie.
- Iraupena (gehienez): 2 ordu eta 10 minutu, honela banatuta: 1:55 ordu (gehienez) irakurriaren ulermena, ahozko ulermena eta idatzizko adierazpenari dagokien saioak eta 15 minutu ahozko adierazpena egiteko saioak.

Saioen hurrenkera deialdi batetik bestera alda liteke.

2.2 Puntuazioa

Proba bakoitzak (hizkuntza-trebetasun bakoitzak) 20 puntuko balioa du guztira, eta azterketa osoak 80 puntuko balioa.

A2 mailari dagokion Ziurtagiria eskuratzeko, beharrezkoa da:

- Azterketa osoaren puntuazioa gutxienez %65era heltzea, hau da, 80tik 52 puntu lortu behar dira.
- Eta proba bakoitzaren puntuazioa gutxienez %50era heltzea, hau da, 20tik 10 puntu lortu behar dira.

2.3 Azterketa osatzen duten proben deskribapena

Irakurriaren Ulermena

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	IRAUPENA
3	20 puntu (%25)	40 minutu

HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> • Eguneroko bizimoduko gertaera batekin lotutako informazioa bereiztea. • Testuaren ideia nagusiak ulertzea. • Testua zehatz-mehatz ulertzea; eskutitz pertsonal bat, adibidez.
TESTU-MOTAK
<ul style="list-style-type: none"> • Informazio-liburuxkak • Argibide-orriak • Egunkari eta aldizkarietako interes orokorreko artikulua edo elkarrizketak • Liburu eta filmen aipamenak • Publizitate-iragarkiak • Eskutitz pertsonal errazak • Merkataritza-eskutitz errazak • Testu laburrak
ARIKETA-MOTAK
<ul style="list-style-type: none"> • Erantzuna: aukera ugari • Egia-gezurra • Informazio-transferentzia • Ordenan jartzeko lanak • Elkarrekin lotzea: (epigrafea edo galdera testu batekin...) • Hutsuneak betetzea (esaldiekin edo hitzekin) • Erantzun bakarreko galdera irekiak

Entzunaren Ulermena

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	IRAUPENA
3	20 puntu (%25)	20 minutu

HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> Eguneroko bizimoduko gertaera batekin lotutako informazioa bereiztea Testuaren ideia nagusiak ulertzea Testua zehatz-mehatz ulertzea; eskutitz pertsonal bat, adibidez
TESTU-MOTAK
<ul style="list-style-type: none"> Informazio-liburuxkak Argibide-orriak Egunkari eta aldizkarietako interes orokorreko artikuluak edo elkarrizketak Liburu eta filmen aipamenak Publizitate-iragarkiak Eskutitz pertsonal errazak Merkataritza-eskutitz errazak Testu laburrak
ARIKETA-MOTAK
<ul style="list-style-type: none"> Erantzuna: aukera ugari Egia-gezurra Informazio-transferentzia Ordenan jartzeko lanak Elkarrekin lotzea: (epigrafea edo galdera testu batekin...) Hutsuneak betetzea (esaldiekin edo hitzekin) Erantzun bakarreko galdera irekiak

Idatzizko Adierazpena

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA	IRAUPENA
2	20 puntu (%25)	55 minutu

HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> Ohar edo mezu errazak idatzi Korrespondentzia pertsonal sinplea idatzi Korrespondentzia formala, erraza eta laburra idatzi Gertakari bat kontatzea
TESTU-MOTAK
<ul style="list-style-type: none"> Mezu elektronikoa

<ul style="list-style-type: none"> • Postala • Oharra • Iragarkia • Eskutitz pertsonal laburra • Eskutitz formal erraza • Gertaera baten deskribapen laburra • Testu elektronikoa (email, forum, bloga,...)
ARIKETAK
<p>1. ataza (5 puntu)</p> <p>Mezu, postal, mezu elektronikoa, ohar edo bestelako testu labur bat idaztea.</p> <p>Hitz kopurua: 35 – 40.</p> <p>2. ataza (15 puntu)</p> <p>Testu motz bati edo jarraibide batzuei erantzunez eskutitza, mezu elektronikoa, deskribapen edo istorio bat idaztea. Iritzia / informazioa modu errazean ematea.</p> <p>Hitz kopurua: gutxi gorabehera 110.</p>

Ahozko Adierazpena

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOAK	IRAUPENA
2	20 puntu (%25)	12 minutu

HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> • Bizitza pertsonalari buruz hiz egin (norbera aurkeztu, egoera pertsonala deskribatu, ekintzak, zaletasunak, esperientziak...) • Gizarte-harreman batean moldatu (agurtu, barkamena eskatu, norbait gonbidatu, elkarrizketa informal batean informazioa elkar trukatu, zer edo zer adostu...) • Eguneroko egoeran, edo transakzioan, moldatu (denda, jatetxea, hotela...)
TESTU-MOTAK
<ul style="list-style-type: none"> • Bakarrizketa • Beste azterketari batekiko / batzuekiko elkarrizketa
ARIKETAK
<p>1. ataza – Bakarrizketa (10 puntu)</p> <p>Azterketariak erakutsi behar du gai dela bere burua aurkezteko eta bere eguneroko bizitzari, ohiturei eta hurbileko inguruneari buruzko informazioa emateko. Horretarako, aztertzaileak fitxa bat emango dio, eman beharreko informazio mota adieraziz. Fitxak hitz batzuk izango ditu, aurkezpenean zer informazio mota eman behar duen adieraziz</p>

(adibidez: «Izena / non bizi / lanbidea»). Azterketariak garatu beharko duen gai bat ere jasoko du.

Azterketari bakoitzak 2 – 3 minutu izango du fitxa irakurtzeko, hausnarketa txiki bat egiteko eta hitz egiteko.

2. ataza – Elkarrizketa (10 puntu)

Aztertzailerak azterketariei lortu behar den helburu bat azaltzen duen fitxa bat emango die (adibidez, oporrak non pasatzea, asteburuan zer egin edo arratsaldea nola pasatzea... aukeratzea). Azterketariek euren artean eztabaidatuko dira proposamenak egiteko eta akordio batera iristen saiatzeko. Emandako informazioan oinarritu beharko dute horretarako: agenda pertsonala, kultura agenda, mapa...

Azterketariek 30 segundo izango dituzte fitxa irakurtzeko eta 4 minutu elkarrizketa egiteko.

Oharra: azterketariek ez dute denborarik izango ariketak prestatzeko.

AHOZKO PROBARI BURUZKO INFORMAZIOA

Ahozko proba binaka egingo da (salbuespenez, hironaka). Epaimahaiak hartuko ditu proba egiteko orduan jazo litekeen edozein gertakizunen gaineko erabakiak. **Ahozko adierazpen probari buruzko azalpen** zehatzagoa ikusteko, [sakatu hemen](#).

3. ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Idatzizko Adierazpena

IRIZPIDEA	ZER EBALUATUKO DA	PUNTUAK GUZTIRA
1. ATAZA		
Alderdi diskurtsiboak	<ul style="list-style-type: none"> Kontsignan eskatutako guztia ekoizpenean egotea. Mezuaren transmisioaren eraginkortasuna (koherentzia, kohesioa, erregistroa, formatua, puntuazioa,...). 	2,5
Alderdi linguistikoak	Mailarako baliabide linguistikoen erabilera zuzena (aberastasun lexikoa, ortografia, morfosintaxia...)	2,5
2. ATAZA		
Egokitasuna	<ul style="list-style-type: none"> Produkzioan enuntziatuan eskatzen diren alderdi guztiak sartzea. Formatua eta erregistroa egokiak izatea komunikazio-egoerarako. Produkzioa egokia izatea jarraibideetan eskatzen den hitz kopururako. 	3

Koherentzia eta kohesioa	<ul style="list-style-type: none"> • Koherentzia ideiak antolatzean. • Esaldien arteko lotura, kohesio-mekanismo egokien bidez. 	4
Egiturak eta lexikoa	Mailari dagozkion lexikoaren eta egitura morfosintaktikoen ezagutza egokia (egituren eta ohiko terminoen askotariko erabilera).	4
Zuzentasuna: Sintaxia eta morfologia	<ul style="list-style-type: none"> • Egitura morfosintaktikoen erabilera zuzena eta komunikazio-egoerara egokitzea. • Ortografiaren erabilera zuzena. • Akatsen interferentzia maila ulermenean. 	4

Ahozko Adierazpena

IRIZPIDEA	ZER EBALUATUKO DA	PUNTUAK GUZTIRA
Egokitasuna	Hautagaiaren diskurtsoa komunikazio-egoerara egokitzea.	10
Ulegarritasuna	Hautagaiak adierazi nahi duenaren ulergarritasun orokorra.	
Elkarreragina	<ul style="list-style-type: none"> • Hitz-txandaren erabilera zuzena. • Oinarrizko estrategia eta oinarrizko egituren erabilera eraginkorra, elkartruke xumea edukitzeko (galderak, erantzunak, diskurtso baliabide errazak...). 	
Arintasuna	Argitasun maila ahoskatzean eta erregularitasun maila jarioan, orokorrean arrakastaz transmititzeko esan nahi dena.	
Zuzentasuna: Sintaxia eta morfologia	<ul style="list-style-type: none"> • Sarri erabiltzen den lexikoaren erabilera nahiko zuzena mezua transmititzean. • Sarri erabiltzen diren gramatika-egituren erabilera nahiko zuzena mezua transmititzean. 	

4. AZTERKETA EREDUA: ARIKETAK ETA ADIBIDE PRAKTIKOAK

Azterketa eredua ikusi eta ariketa praktikoak egin nahi izanez gero, [sakatu hemen](#).

5. AZTERKETA EGITEAREKIN ETA ADMINSTRATZEAREKIN LOTUTAKO ZENBAIT KONTU

5.1 Administrazioa

- **Azterketa egin ahal izateko baldintzak**

Oinarrizko Mailako ziurtagiria lortzeko azterketa egiteko, nahitaezko baldintza da Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako batean matrikulatuta egotea dagokion hizkuntza eta mailan.

- **Deialdiak**

Azterketetako egutegia kontsulta daiteke ikasturte bakoitzari dagokion ebazpenean, ikasle ofizialenean zein azterketari libreenean.

- **Azterketa ezintasunen bat duten pertsonen egokitzea**

Ezintasunen bat duten ikasleen behar berezietara egoki daitezke azterketak. Horretarako, matrikulatzean, dagokion eskolan jakinarazi beharko du hori interesatuak.

- **Azterketa berrikusteko eta erreklamatzeko eskubidea.**

Antolakuntza eta funtzionamendu araudiaren arabera –bertan zehazten da zein diren ikasleen eskubide eta betebeharrak– edozein azterketarik uste badu ebaluazio-prozesua ez dela egokitu araudian ezarritakora, azterketa berrikusteko eskaera egin dezake azterketa egin duen Hizkuntza Eskola Ofizialean, eskola bakoitzak aurreikusitako egutegia errespetatuz, betiere. Dagokion hizkuntza-departamentuak azalpenak emango dizkio interesatuari.

5.2 Azterketariaren Eginbeharrak eta Erantzukizunak

	Azterketa-saioaren aurretik	Azterketa-saioaren zehar
EGINBEHARRAK	<ul style="list-style-type: none"> • Gogoratu NAN, pasaportea edo nor zaren egiaztatuko duen beste agiriren bat aurkeztu beharko duzula azterketa-gelan eskatutakoan. • Tinta beltz edo urdinezko boligrafoa ekarri behar duzu probetara. • Probak normaltasunez egitea oztopa dezakeen edozein arrazoiren berri eman behar zaio eskolako Ikasketa Burutzari, gutxienez proba egin baino astebete lehenago. Ikastetxeko Zuzendaritzak erabakiko du aurkeztutako arrazoia onartu ala ez; edozein kasutan, ordaindutakoa ez da itzuliko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Aztertzailleek emandako argibideei jarraitu, uneoro. • Itzali gailu elektronikoko guztiak, telefono mugikorra, aurikularrak eta erloju elektronikoa barne. Azterketa egin bitartean, ezin izango da horrelako gailurik erabili, ezta denbora kontrolatzeko ere. Arau hau bete ezean, azterketa baliogabetu egingo da. • Erantzun guztiak boligrafo beltz edo urdinaz idatz itzazu. Ez ezazu erabili ezabatzen den boligrafoa. <p>OHARRA: Ezingo da, azterketa gelatik irten ezta sartu ere entzundakoaren ulermen proba irauten den bitartean.</p>

ERANTZUKIZUNAK	<ul style="list-style-type: none"> Ondo begiratu proben eguna, ordua eta gela zein diren, eta antolatu garaiz iristeko. Gogoan izan, behin azterketa-saioa hasitakoan, ez dela inor onartuko gelan. 	<ul style="list-style-type: none"> Behar bezala antolatu eta banatu ariketa bakoitza egiteko dagoen denbora. Denborak kalkulatu daude eta ariketa bakoitza egiteko nahikoa asti dago. Komenigarria izaten da berrikustea eta egon daitezkeen akatsak zuzentzea. Arretaz irakurri ariketa eta zati bakoitzerako emandako argibideak. Letra argia erabili azterketako ataza guztietan. Zuzentzat emandako erantzunak argi geratu direla ziurtatu. Garrantzitsua da lasai egotea eta probak egiteko ematen diren argibideak arretaz jarraitzea, batez ere entzunaren ulermenari dagokion zatian.
-----------------------	--	---

6. INDARREAN DEN ARAUDIA

6.1 Lege eta Administrazio Arauak

A2 mailari dagokion Ziurtagiria lortzeko azterketak legean eta administrazioan arauturik daude, ondorengo lege eta agirietan, hain zuzen:

- [2/2006 Lege Organikoa, 2006ko maiatzaren 3koa.](#)
- [1041/2017 Errege Dekretua, abenduaren 22koa](#) Erregimen bereziko hizkuntzen irakaskuntzako tarteko B1 mailako, tarteko B2 mailako, C1 maila aurreratuko eta C2 maila aurreratuko curriculumaren oinarritzko alderdiak finkatzen dira dekretu horretan. Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, arautzen ditu Erregimen bereziko hizkuntzak.
- [80/2019 DEKRETUA, maiatzaren 21ekoa](#) Euskal Autonomia Erkidegoan araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen ezarpena xedatzen duena, irakaskuntza horietako oinarritzko A1 mailaren, oinarritzko A2 mailaren, tarteko B1 mailaren, tarteko B2 mailaren, C1 maila aurreratuaren eta C2 maila aurreratuaren curriculumarekin batera.
- [1/2019 Errege Dekretua, urtarrilaren 11koa](#) Erregimen bereziko hizkuntza-irakaskuntzako tarteko B1 mailaren, tarteko B2 mailaren, C1 maila aurreratuaren eta C2 maila aurreratuaren ziurtagiria eskuratzeko probetarako ebaluazio-oinarri bateratuak ezartzen ditu.
- EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialetako B1 mailaren ziurtagiria eskuratzeko **Azterketa-Zehaztapenen** dokumentua.
- Ebazpena** Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako **proba librean deialdia** arautu eta probak nola egingo diren finkatzekoa, oraingo ikasturte honi dagokiona.
- [Europako Erreferentzi Marko Bateratua](#), batez ere:
 - 3.3 puntua, 1. kuadroa (44. orrialdean)
 - 3.4 puntua, 2. kuadroa (46 – 47. orrialdeetan)

6.2 Informazioa

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko [Hizkuntza Eskola Ofizialen Web orria](#)